



[b]

BARREN

ELGOIBARKO AŒTEKARIA

622. zkia.

XV. urtea

2007ko uztaġaren 13a

Euskal Jaia 1907

100 urte eta gero euskal kultura plazara



RENAULT
ocaSIÓN

Mégane Sedan Confort Dynamique 1.5 dCi 100zp	2005	15.600 €
Grand Scénic Confort Dynamique 1.9 dCi 120zp	2005	18.500 €
Espace Expression 1.9 dCi 120zp	2006	22.860 €
Kangoo Combi ICE 1.5 dCi 65zp	2006	12.500 €

Scénic
Confort Expression
1.5 dCi 100zp

14.600 €*

2005ean multikulatua



*Tenderentzako Salmenta Prezioan sartuta daude transferentzia-gastuak. Eskaintzak lokalki agortu arte balio du. Irusten den modeloa: Scénic Dynamique.



Eraman DVD bat

ibilgailu bat
erosita*

*Eskaintza lokalki agortu arte balio du. 07/06/30 baino lehen erregistratu egin behar da.

compromiso RENAULT Garantía ocaSIÓN hasta 24 meses

AUTOBERRI ARRASATE - AZPEITIA - ELGOIBAR - IRUN - TOLOSA
Eta bere Agentzia Sarea BERGARA - LAZKAO - DIARTZUN - ZARAUTZ



Orain duzu aukera, aldatu zure auto zaharra Opel ekologiko batengatik.

Opel sarean bakarrik emango ditugu Prever Plan
Hiruak 1.440 euroko aurrezpen gehigarriekin,
Opel Astra, Zafira edo Meriva bat erosita.



prever
plana x 3 = 1.440€-ko
aurrezpen gehigarriekin

ecoflex

GMAC

Giauto
www.giauto.es
clientes@giauto.es

salmentak: 902 345 123
tailerra: 902 345 125

ELGOIBAR
Olaso 25
EIBAR
Otaola 27

ANOETA-TOLOSA
Benta-Aldea Ind. 3
ARRASATE
San Andres 100

BERGARA
Olabarrena
OLABERRIA
Karobi Ind.



ALAITZ VIVES

“Tristura lagun izango dut beti” halaxe esan dit lagun batek hitzik gabe galdegin diodanean. Bigarren galdera airean geratu da “zerk ekarri du hain gonbidatu desatsegina zurerara?”.

“Besterik gabe gertatu zen. Egun batez, bazkal ostean telebista ikusten ari nintzela konturatu nintzen. Hantxe zegoen. Momentuko sentsazioa zelakoan ez nion bestelako garrantzirik eman. Egun hartan joan etorrian ibili zitzaidan sentsazioa izan zen. Dutxan nengoela adibidez, argi eta garbi sumatu nuen. Kafea egiten ari nintzenean ostera ez nuen sumatu eta kafe kikara eskuan nuela ere ez. Baina lagunarteko afarian baiezatu ahal izan nuen hantxe zegoela eta ez zuela alde egiteko intentziorik”. Harriduraz begiratu nion.

“Orain ez nau horrenbeste kezkatzen” jarraitu du berak. “Hasieran deseroso sentitzen nintzen. Nire infimitatea erasotuko balu bezela. Hantxe zegoen beti. Goizean iratzargailuak egunon esan aurretik banekien hantxe zegoela. Bere begi ilunekin niri begira. Ez nau kanpotik begiratzen. Barrutik baizik. Erraieztatik”.

“Baina gau beltzean, etxeko bakardadean amas estuka esnatzen naizenean ere, hantxe dago, niri begira, lasai, ez kezkatu, hemen nago esanez, eta bere presentzia sumatzeak berriro, loak hartzen laguntzen dit”.

Zozoarena batzuetan, belearena besteetan nere lumak tinta ikusezinez idatziko du aurrerantzean. Ondo izan, Alain!

ZOZOAK BELEARI...



ALAIN MANTEROLA

Ez hain triste bukatu!

Hauxe baita gure azken idatzia hemen. Eta pentsatzen ari naiz BARRENen daukadan hor goiko argazki guai horretatik buroa ateratzea agurra emateko. Jo daigun zeu ere zeure argazkitik ateratzen zarela eta ostiraletako irakurle guztien aurrean agurreko muxutxo bat ematen diogula elkarri, juxtu hor, BARRENeke lehen bi orrialdeak elkartzen diren erreten horretan eserita ipotx birtualak bagina lez.

Baina imajina daigun halako sugandila bero bat igotzen zaigula bioi bizkarrezurretik gora, eta muxutxue besarkada bilakatzeko eta sabel bularrak elkartzen ditugula, eta han bertan hasten garela elkarri arropak haginika apurtzen eta elkar gozatzeko...

Eta demagun orduan ostiraletako BARRENeko gure jarraitzaile guztiak panorama honen aurrean bero-bero eginda logelara doazela eta hemendik 9 hilabetetara bostehun ume jaiotzen direla Mendaron. Eta genetikoki gure irakurleak euskaltzale eta irakurzaleak direnez, bostehun ume horiek iraultzaileak ateratzen direla, eta hemendik 20 urtetara bi gaztetxe, hiru herriko taberna, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketan bi finalista, ordu txikitako ehun sasibertsolari, lau poesia sari nazional, Amazonasko indigena batekin ezkonduetako antropologo bat eta bost musika talde punky ditugula Mendaron...

Ostia! Orain ere erre zaizkit garbantzuak. Banoa. Agur!

«Nere lumak
tinta ikusezinez
idatziko du
aurrerantzean»

ALAITZ

«Ez hain triste
bukatu, hau
baita gure azken
idatzia hemen»

ALAIN



AZKENA ESAN BEHAR DENA, EZ AURRETIK ESAN



Esaera zaharra

Mendaroko PNVren gehiengo absolutuaz

Demokraziaren edo herriaren hitza-
ren irizpideak jarraituz honela geratu da
Mendaroko udalaren banaketa zinego-
ztitan: PNV: 5, EA:2, ANV:1, PSOE:1. Ale-
gia, EAren hirugarren zinegotzia geuri
dagokigula berez. Egon gara berbetan
EAko ordezkariekin eta gure eserleku ho-
ri eurentzat hartuko dutela esan digute
alderdiaren goi aginduengatik-edo. Gu-
re ustez erraz alda litekeen jarrera, are
gehiago Zumaian, Azpeitian, Ondarrun
eta beste hainbat herritan EAko udal
hautetsiek borondate propioz hartu dituz-
ten erabakiak ikusita.

Bestalde, esan behar da 3 boto, bai,
3 boto bakarrik, falta izan zaizkigula bi-
garren zinegotzia lortzeko eta zinegotzi
hori PNVrena litzatekeela, horrek gehien-
go absolutua kenduko liokeelarik. Pena,
baina onartu egin behar.

Hala ere, *fiktizioa* iruditzen zaigu
gehiengo absolutu hori, ilegalizatorik
gabeko baldintza normaletan hiru boto
horiek eta gehiago lortuko baikenituzke.

Horregatik, PNVri zera eskatzen dio-
gu: edozein erabaki hartu eta gauzak
nahieran egin aurretik elkarrizketa eta
negoziazioa bilatzeko besteokin. Irune
Berasaluze alkatesak hitz ederrak erabili

ditu BARRENe azken elkarrizketan,
“ANVkoak udaletxea irekita izango dute,
gainontzeko herritarrek bezalaxe”, “ez
nago ados alderdien legearekin”, baina
kontraesanak ere bai, “parte hartzea izan
beharko lukete, beti ere, lege barruan”.
Legearekin ados ez, baina lege barruan
mantendu nahi gaitu.

Duela lau urte jaso zuten jipoiari bu-
ruz zera dio Irunek: “Gauzak beste modu
batera egiten saiatuko gara, herriak ga-
rai hartan erakutsi zuen borondatearen
arabera lan egiten saiatuko gara.” Asko
pozten gara eta emandako hitza hartzen
diogu alkatesari.

Finean, 2003ko emaitzekin konpara-
tuz modu paregabeen %50a igotzen la-
gundu diguten eta Gipuzkoan indar
abertzale nagusia izateraino bultzatu
gaituzten mendaroarrei eskerrak emanez,

MENDAROKO EAE-ANV.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENe edozein gutun
argitaratu ahal izateko, honako
baldintza hauek bete beharko ditu
nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak
egon behar dute: izen-abizenak,
telefono zenbakia eta NAN
zenbakia derigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen
inizialekin edota izen-abizenekin
argitaratuko dira. Ezizenarekin
ezingo dira sinatu gutunak. Onartu
egingo ditugu identifikagarriak diren
taldeak: “Ikastolako irakasleak”,
esaterako. Bestalde, sinatzailearekin
batera beste lagun batzuk ere
daudenean, hauek ere identifikatuta
egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-
egilearen izen-abizenak jakiteko
eskubidea izango dute gutun
horretan euren izena aipatu edo
erreferentziaren bat egiten bada eta
gutuna inzialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun
iraingarriak eta errespetu faltaz
idatzitakoak, buzoneatzeko edo
kale banaketa egiteko idatzitako
idazkiak, pertsona eta erakundeei
zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gaztelaraz datorren
eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENe ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Irati Agirrezaldegi
PUBLIZITATEA Eider Iriondo **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz,
Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito
Gorosiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga,
Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria,
Maialen Olazabal, Josone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite
Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.650 ale
LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



TXALOAK

• **Kuadrilategi egitasmoan parte hartzen ari direnek bertako begiraleak txalotu nahi dituzte:** "Kuadrilategin gabiltzanok Eukene eta Ander txalotu nahi ditugu, ikasturtean zehar gurekin izan duten jarrera eta jatorrasuna ezin hobek izan direlako. Eskerrik asko guregatik egin duzuen guztiagatik eta ea, datorren urtean ere, zuekin jarraitzeko aukerarik daukagun, horixe delako gure nahia".

• **Txalo bero bat Alkorta enpresari ate irekien eguna antolatze-gatik:** "Oso ondo pasatu genuen Alkorta enpresaren ate irekien egunean. Mila esker eta segi horrela".

• **San Pedroko alkateak auzoko jaietan parte hartu duten guz-tiei eskerrak eman nahi dizkie:** "Eskerrik asko San Pedro auzoko festak antolatzen lagundu diguzuenoi eta bertako ekintzetan parte hartu duzuen guztiei ere".

• **50 urtekoen bazkarian parte hartu zutenei, mila esker:** "Oso ondo pasatu genuen, eskerrik asko etorri zineten guztioi. Nahi duenak www.elgoibar.org webgunean eskuratu ditzake ospakizuneko argazkiak".



KEXAK

• **Atxutxiamaikako udalekueetan ez dabilzan umeez ezin izan zuten parte hartu San Fermin Txiki egunean:** "Joan zen astean San Fermin Txiki Eguna antolatu zuen Atxutxiamaikak eta udalekueetan ez dabilzan umeei ez zieten laga parte hartzen. Oso gaizki iruditu zitzaigun, umeez ez dute ulertzen eta pena handiz geratu ziren asko. Herrian antolatzen diren ekintzetan ume guz-tiek hartu beharko lukete parte."



• **Igande arratsaldetako erromeriak kendu egin dituzte:** "Igande arratsaldetan Gelatxo orkestrarekin dantzaldia izaten zen Plaza Handian, baina Udalak aurten ez du horrelakorik antolatu. Fal-tan botatzen dugu benetan, gustatuko litzaziguke gure eskaera kontuan hartzea".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza





URRUZUNOREN *Luma*

SUPER-HIPER-MEGA MERKATUA

Erosketak egitera sartu eta kontserbatzailerik gabeko ogirik ezin aurkitu. Dilista, barbantxo eta babak erosi nahi eta prestatutakoak baino ez daude!!! Marrubiak, tomateak, piperrak edota letxugak, urteko ia 365 egunetan erosi daitezke, baita domeketan ere. Zapore zein usainik gabeko barazki polit politak urte osoan zehar!

Etxeetan apenas sukaldatzen da.

Kaleetan oinez doazela plastikoan bildutako edozer bazkaltzen dute.

Munduan zehar gertatzen da.

Hementxe gertatzen hasi da...

Amaia Urzelai

[ZORTZIKO TXIKIAN]



LEIRE AREVALO

ECUADOR BIDAIK
AGENTZIAKOA

• **Nolako bidaiak eskatzen ditu udarako jendeak?**

Hondartzakoak batik bat; Europa barruko zirkuituak ere eskatzen dizkigute.

• **Zein da aurtengo udarako lekurik arrakastasuenak?**

Kanariar Uharteak eta Balear Uharteak, batez ere eguraldiarengatik eta erosotasunarengatik.

• **Yemeneko atentatua dela eta ezeztatu duzue bidaiarik?**

Ez, baina jendeak zalantza izan du Egipto edo Tunez moduko lekuetara joateko, beldur piska bat eragin du.

• **Zenbat egunetarako joaten da bidaiari jendea?**

Astebeterako. Eskaintzak astebetekoak izaten dira gehienetan.

• **Sumatu duzue beherakadarik agentzian jendeak bidaiak internet bidez hartzen dituelako?**

Askorik ez. Jendeak hegaldien prezioak interneten kontsultatzen ditu, baina erostera guregana etortzen dira.

• **Nolakoak dira zuen bezeroak?**

Denetarioak: gazte, bikote, familia, enpresetako jendea...

• **Zein abantaila ditu bidaiari agentzian hartzeak?**

Aholkularitza. Denok produktu bera saltzen dugu, baina lekuaren berri aurrez aurre jasotzea eskertzen du bezeroak

• **Zu nora joango zara oporretan?**

Abuztuan mendira eta irailean hondartzara, Ibizara.



Erregistratu
eta eman zure iritzia.

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE ZUBIZARRETA

1924an jaioa

«Gerria»

12 urte kunplidu baiño lehenago, gerriak urten zaban, 1936-xan, 18 de julion, eta guk gerriak urten zaban egunian, San Lorentzoko eskolatik eskursiua egin gendun autobus bat hartuta, Tolosatikan eta Donostiitikan bueltia. Tolosako txapel fabrikara jun eta gero, Donostiara jun giñan, han Amara aldeko iturri edarra, txorruak eta ikusi genduzen. Nere eskolako asuntua han amaitxu zan. Gerria etorri zanian, euskeraz hitz egiñ, edozein lekutan, bueno!!!! Zeuk ez bazendun ardura, atzera atzera etorri ta barrura.

Gogoratzen naiz nola, setienbrian egun baten mendira jun nitzan ardi billa, Muskurutxura illuntze aldera, beste lagun batzukin, eta han zauden gorri-xetakuak pistola batekin. Han gaiñian ikusi genduzenian, da erten ziguen, eta zelako saltakia eruan gendun etxera!

Gerriak urten zaban bezperia zan haura; eguraldi edarra zan. Beñ bezela, Karakate, Sarguate aldian, piñurik ez zauan, eta domeka haretan Azkoitira sartu ziran. Ta han ikusten ziran milizianuak buzo beltzakin, hemen Azkaraten behera kamioi zaharrekin. Gero,



arratsaldian, goitik behera frentia pasau zan.

Gu hantxe, 12 urtekin, Elgoibarera sartu ziran astelehenian. Nik arrebakan senide batekin Bilbora junda ume bat zaintzera. Nere ama jun zan haren billa, eta handik etorrita, gero Eibarren zihar, Arraten zihar pasorik ez.

Gero, umiak hartu neskakosortxua, eta ezin pasau. Egun bat edo bi egin zittuen. Gu etxian, telefonazua batian, bestian, notizia txarrak, abioiak, bonbardeua...

[GURE BERBAK]

Esaera batzuk

Abuztuko oporrak bittartian, gramatika kontuak alde batera laga, eta esaera batzuk ekarriko dittut hona, udako giruan samurtxuaguak egingo jakuzelakuan. Gaurkuan, urteko sasoiakin eta jaixekin lotuta daudenak ekarriko dittut.

Altzolan San Juan jaixak pasau dira, eta halaxe esan izan da egun haundixa allegatzen danian:

*Gaur San Juan, bixar juan zan.
Egunik luzena, San Juan eguna.*

San Pedruak ere pasau dira, eta badago egun hori aittatzen daban esaera bat ere, kukuaren kantaldixen sasoiak biltzen dabana (martzuaren 25 aldetik ekainaren 29 aldera):

Andramari martixan kuku, San Pedruetan mutu.

San Bartolomiak pentsau baiño lehenago allegatuko dira, eta udia orduan amaitzen ari dala esan izan da esaera batzuetan (aurtenguan udia allegatzen bada behintzat!):

San Bartolomiak ezker, muiño txixixak itzal haundixa.

San Bartolomiak ezker, eulixak burua behera eta ipurdixa gora.

Batian eguzkixa jaisten hasten dala, eta bestian eulixak akabatzen, berriz.

San Rokiak ere (abuztuaren 16-xan) aittatzen dira honetan:

San Rokiak ezker, lurra beltz.

Jesus Mari Makazaga

ESKERTZA

2007ko uztailaren 8an hil zen

Concha Muguerza Izaguirreren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LEHEN SEKTOREAREN GAINBEHERA

BASERRIKO LANAREN ETORKIZUNA KOLOKAN?

Nekazaritza eta abeltzaintza herriaren oinarria izan dira mende luzeetan barrena, baina lehen sektoreak gaur egun nolabaiteko krisialdia bizi duela esateko moduan gara. Gainbehera dator lehen sektorea; gero eta baserriar gutxiago dago gurean eta belaunaldien artean ez dago erreleborik. Zahartuz doazen jarduerak dira baserrikoak eta gazte gutxi aurkitzen dio erakargarritasunik baratzean edo soroetan lanean jarduteari.

Debabarrenean nekazaritzako gizarte segurantzaren ordaintzen duten baserriarrek guztira 109 dira; horren arabera esan genezake gutxi gorabehera horiek direla baserriar bizimodua ateratzen dutenak. Horietatik 26 dira elgoibartarrak eta baserriar gazteen artean kokatzen dena bakarra. Gainera, kontuan hartu behar da behin erretiroa hartutakoan ez dutela gizarte segurantzarik ordaintzen eta horren erakusle da ia zati hona zazpi gutxiago direla ibarrekoko datuen arabera.

Baserriko lana gogorra da oso; ordu-tegirik gabea, eguraldiaren mendekoa, neke fiksikoa eragiten duena, opor eta aisialdirako aukera gutxi uzten duena... Horri gehitu behar zaio baserriko lanetik lortutako irabaziak ez direla askok uste duten bezain handiak. Eskualdeko Nekazaritza

Bulegoko Buru Alfonso Gonzalezek Pago Unico izeneko dirulaguntzei erreparatuta zera esan digu: "askotan entzuten da baserriarrek dirulaguntza asko kobratzen dutela baina %67ak 1.000 eurotik behera kobratzen du, hortik atera kontuak".

ERRELEBORIK EZ

Elgoibarren 26 baserri dira dedikazio osoa dutenak. *Pago Unico* delako laguntza jasotzen dutenak 124 izanik 26 dira baserriar bizi direnak bertatik soldata minimoa jasoz. "Askok baserria osagarri moduan dute eta kanpoan beste lan bat egiten dute", dio Alfonso Gonzalezek.

Baserrian urte luzetan lanean jardun ostean geratzen diren erretiro baldintzak ez dira oso txukunak eta horrek ere atzera botatzen ditu gazteak. Izan ere, askok lanean jarraitu behar izaten du bizirauteko

erretiroa hartu ondoren ere. Emakumeen kasua ere aipatu digu Alfonso Gonzalezek: "emakumeak baratzean zein animaliekin lan egiteaz gain, bestelako lanak ere egiten dituzte. Datuei erreparatuta ikus daiteke emakume batzuek ordaintzen dutela nekazaritzako gizarte segurantzaren gero erretiroan ordainsaria jasotzeko".

Datuak alderatzen jardun dugu Alfonso Gonzalezekin eta nabamen ikusi dugu lehen sektorea jaisten ari dela pixkanaka; eskualdean ia 109 baserriar ziren horretatik bizi zirenak eta aurten 102. Elgoibarren hiru gutxiago daude eta Mendaron bi gutxiago. "Adina da arrazoia. Ez dago belaunaldien arteko erreleborik eta berriak ez dator. Baserriak lotura handia du eta soldata ez da hainbesterako. Ez du konpentsatzen. Baserriar askok nahi duena da bizimodua baserrian mantendu baina soldata kanpotik jaso", esan digu Alfonso Gonzalezek.

Gazteen lan jardunari buruz egindako ikerketen arabera, sektore nagusia zerbitzuena da; gazteen %61ek horretan dihardu; lehen sektorean, aldiz, %1 baino ez. Baserriaren aukera hartu duten gazteak bide berriak jorratzen hasi direla dio Alfonsok eta guk ere bertatik bertara ezaugu dugu kasu bat: "gauza berrietan sartzea da itenbidea. Ardiak ipiniz gero gazta egiteko, elkarreterako kide modura dihardutenak ere badira, horrek aukera ematen die oporretarako, animaliak loteka ekarri gero aldaketa sasoiari, esaterako. Ortuak aukeratzen duten askok nekazaritza ekologikora jotzen du. Produktuari eta lanari balio erantsia ematea da kontua".





ARGIÑE RUBIO eta AMAIA JAIO

Produktu ekologikoen saltzaileak

«Baserriko lana lotua bezain askea izan daiteke»

Baserrian hazi eta kaleko lana ezagutu ostean, baserri edo honekin lotura duten lanetara itzuli da Argiñe. Amaia kaletarra da eta ortugintza ikasketak egin ditu. Biek ala biek produktu ekologikoak saltzen dituzte, baina euren asmoa baserriko lanetik bizitzea da.

Sektorea behera doanean nola egin duzue honetan jarduteko apustua?

Amaia: Ez dut begiratu sektorea gora ala behera doan, gustuko dudalako sartu naiz. Baserri mundua gustuko dudanez horrekin lotutako ikasketak egitea erabaki nuen eta konturatu nintzen probatu ditudan beste lan batzuk baino gogokoago nuela.

Argiñe: Baserrikoa naiz eta nahi nuen irten eta ikustea kanpoan zer zegoen, ez 20 urterekin baserriara lotzea. Kanpokoa probatu ostean, nekazaritzari heldu diot. Beharbada ez du irtenbide handirik baina ez diot hori erreparatzen; beste gauza batzuetan aurkitzen dut aberastasuna: niretzat egiten dut lan, ordutegia moldatzen dut, maila pertsonalean gehiago aberasten nau.

Esaten duten bezain gogorra eta lotua da baserriko lana?

Amaia: Lotua izan liteke baina lana maitasunez egiten dugu. Ortuan egin dut lan batez ere eta beharbada animaliek lotura handiagoa eskatzen dute egunero eman behar zaie jaten, baina egun batzuetarako adina janari utziz gero edo aske badaude moldatzen dira. Ikusi dut baserriarrak zein harro dauden lortutako produktuekin, beste lan batzuetan ez bezala.

Argiñe: Kontraesana dirudien arren baserriko lana lotua bezain askea da. Kanpoan egiten dugu lan, ordutegi malguarekin, ez gaude inoren mende... Fabrikako lana lotuagoa, itxiagoa da.

Orain dendan diharduzue lanean; baina baserrian ere egin duzue, ezta?

Argiñe: Nik gutxi. Aita ez dagoenean edo laguntza behar duenean baino ez.

Amaia: Txillarren egin ditut praktikak egunero ortuan lanean. Orain produktu ekologikoen denda daukat, baina nire asmoa da ortu txiki bat jartzea hartutako praktika ez galtzeko eta etorkizunean horretan jardutea nahiago dut dendaria izan baino.

Gazteok baserriari beste ikuspuntu batetik begiratzen diozue beharbada.

Amaia: Kaletik baserriara goazenok, herriko ikuspuntua eta ideia berriak dauzkagu. Baserrian jaio eta hazi denak askotan betiko bidetik jarraitu beste erremediorik ez du, baina ni bezala baserriko lana aukeratu dugunok ilusioa dugu denaren gainetik.

Argiñe: Belaunaldi berrikoak gutxiago izan arren sektorea aldatzen dihardugu: elkartek sortuz, salmentarako internet erabiliz... Hala ere, oraindik nabarmena da lehengo eta oraingo baserriarren arteko banaketa.

“Baserriko lanetan dihardugun gazteok beste gauza batzuetan aurkitzen dugu aberastasuna”

Zein ezberdintasun dago lehengo eta oraingo baserriarren artean?

Argiñe: Nekazaritza ekologikoa egiten dugunez, antzina bezala jarduten dugu neurri handi batean, eskuarekin lan asko egin arren aurrerapenak aprobetxatzen ditugu: astoaren tokian traktorea dago orain.

Nekazaritza ekologikoa balio erantsia da zuen jardunarentzako. Jendeak apreziatzen du?

Argiñe: Pixkanaka, baina nik uste dut jendea egiten ari dela produktu mota hauen aldeko apustua.

Amaia: Jendea nahastuta dago hainbeste etiketa, label eta markarekin, beraz, jende artean ezagutaraztea, informazioa zabaltea da kontua. Gerturatuz gero baserriarrak nola lan egiten duten ikustera, norberak ikusiko du zer nahi duen, baina modu ekologikoan lantzen den baratza batek betiko ortuaren itxura izango du, besteak artifizialegoak dira.

Nola ikusten duzue sektorearen geroa?

Argiñe: Zalantzas begiratzen diot etorkizunari. Azokako salmentak behera doaz, hala ere, itxaropenik ez dut galdu.eta baserriko lanari eusteko gogoia dut. Inguruan ere gazte asko sumatzen dut gogotsu; gainera, nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua egiten dute. Egun baserri bizi denak ez du horretatik aberastu nahi; nahikoa du pozik bizi eta norbere beharretarako diru apur bat aterata.

Amaia: Euskal Herrian baserri asko dago baina mendiko eta baserriko bizimodua aldatzen ari da. Txalet asko egiten ari dira, pinu asko landatzen... Baserriak mantentzen dira baina baserri asko kalean egiten du lan. Nik neuk alderantzizko bidea egiteko itxaropena eta gogoia dut, baina dirua da arazoa. Lurrik ez izatea da zailtasuna gazteak nekazal munduan sartzeko. Laguntzak ematen dituzte baina horretarako lan asko egin behar da

[PROTAGONISTA]



Ane **Urain**

Aurten Euskadiko txapeldun izan den Sanlo Eskubaloi Elkarteko infantil mailako nesken Olalsa taldean dihardu Ane Urainek. Espainiako Eskubaloi Federazioak deituta Sorian da 14 urteko elgoibartarra. Espainiako selekzioarekin jardun du uztailearen 9tik 16ra bitartean. Aurrez Euskadiko eta Gipuzkoako selekzioetako partaide izan da eta lehen aldiz orain Espainiakoarekin. Kontzentrazioa 40 jokalaria gonbidatu dituzte entrenatzeko eta partiduak jokatzen. Berarekin izan da Lorea Gabilondo Olalsako entrenatzailea eta Gipuzkoako bigarren entrenatzailea elgoibartarra hori ere.

[NOTIZIA]

Udaleko Batzordeetako buruak izendatu zituzten Udal Plenoan

Udalbatza joan zen ekainaren 16an osatu ostean, lehen udalbatzara egin zuten asteazken honetan; bertan besteak beste Batzorde Informatiboak eta Iraunkorrak osatu zituzten eta baita Batzordeburuak zein izango diren esan ere: Herri Ogasuneko batzordeburua Bittori Zabala izango da; Barne eta Pertsonal Batzordekoa Manuel Astray; Osasun, Gizarte eta Ongizate Batzordekoa Eloisa Zubiaurre; Hirigintzako Jon Zubiaurre; Kulturako Inigo Zearsolo; Eskara Batzordekoa Jon Peli Uriguen; eta Gazteria Batzordekoa Alberto Iriondo. San Lazaro egoitzako ordezkaria Alfredo Etxeberria izango da eta Kirol Patronatuko Ricardo Garate.

Erakunde ofizialak

Bestalde, hainbat erakunde ofizialetako Udal ordezkariak izendatzeko ere baliatu zuten udalbatzara. Alfredo Etxeberria alkatea izango da Udalaren ordezkaria Debabarreneko Industrialdean, Debegegan, IMH-Gestio Eskolan, Eudelen eta Debemenen; Jon Zubiaurre Gipuzkoako Ur Partzuergoan eta Mankomunitatean eta



Eskola delegazioan Nekane Ortuoste. Alkateordea Jon Zubiaurre izango da eta udalbatzarrean onartu zuten lanaldi osoa izatea honek udaletxean.

Istiluak plenoan

ANVko hiru zinegotziak mahaian eseri ziren eta ondorioz, hainbat istilu sortu ziren, PPko Javier Nuñez zinegotziarekin batez ere. Behin baino gehiagotan moztu behar izan zuen alkateak plenoa ezker abertzalekoen eta PPkoen arteko hika-mikaren ondorioz. ANVkoek herriaren hitza errespetatzeko eskatu zuten, eta 182. artikulua aplikatuz, udaletxean lekua izango luketela aipatu zuten.

asteko [ARGAZKIA]



Etorkizunean karentze eta karreria zentru izango den Mekako lanekin hasi dira asteon. Horretarako, Antzibar enpresako langileak lurra egokitzen dihardute Albitxuriko industria gunean. Gutxi gorabehera 13 hilabetez jardungo dute bertan eta lanen kostua 4,1 milioi eurokoa izango da. Aurreikuspenen arabera, eraikina altxatzen irailen hasiko dira eta orduan egingo dute lehen harria ipintzeko ekitaldi ofiziala ere. 3.978 metro koadroko azalera hartuko du ikastetxeak eta 3.000 ikaslerendako lekua izango du.

San Antolingo auzotarren lokalerako 234.000 euro emango ditu Udalak



Morquecho

San Antolin auzoan 14 baserri daude eta bertako bizilagunek behin eta berri eskatu dute elkartzeko lokal bat izatea. Izan ere, orain arte Usatorre tabernan edo eliza modura erabiltzen duten lokalean elkartu izan dira auzotarrak bile-
rak egiteko. Badirudi eskatutakoa lortzeko lehen pausuak ematen hasi direla. Udalak lehiaketa bidez egin nahi du auzoko lokal baten jabe eta 234.000 euro aurreikusi ditu horretarako.

Iñaki Ansola Mausitxa auzo alkateak esan digu eurek nahiko luketela lokala gastea autopistako zubiaren azpiko erai-

kinean. Izan ere, jaiak bertan ospatzen dituzte irailan eta hori jotzen dute egokitzat. "Auzotarrok nahi genuke irailerako, jaietarako, lokala izatea. Egokitu gabe egon arren lokala bera daukagula jakitea ongi legoke", dio Mausitxak.

Lokala Udalarena

San Antolingo lokalaren jabetza Udalak izango du eta auzotarrek emango diote erabilera. Besteak beste bileretarako erabiliko dute. Auzoan baserri gutxi izan arren, kalean bizi diren auzotarrek ere har-
tzen dute parte batzarretan.

[MOTZ-MOTZIAN]

Argazki zaharren erakusketa

Euskal Jaiaren mendeurrenaren baitan Elgoibarko argazki zaharrak ipiniko dituzte ikusgai Kultura Etxeko erakusketa gelan hilaren 16an. Besteak beste Euskal Jaiaren inguruko erretratuak egongo dira, baita lagun artekoak ere. Erakusketa bisitatu nahi dutenek astelehenerik zapatura arte izango dute aukera 19:00etatik 21:00etara bitartean. Uztailaren 28ra arte iraungo du erakusketak.

Merkatu plazako zozketa

Hilabetero moduan oraingoan ere 60 euroko bi sari banatu dituzte Merkatu Plazako dendariak bezeroen artean. Angeles Arriola Salegi eta Jone Garcia Vallejo izan dira irabazleak. Saria Merkatu Plazako dendetan gastatu ahal izateko erosketak txeketan jaso dute.



DVD emanaldia gaztetxean

Datorren egunean, uztailaren 19an DVD emanaldia izango da 22:00etan gaztetxean. Segi gazte erakundearen "Gazte kaiolatik at" irudi sorta emango dute. Dokumentu horiek internetetik jaisteko moduan ere ipini dituzte oraingoan.

Esperientzia Eskola

Zabalik dago Debarreneko Esperientzia Eskolan izena emateko epea. Heziketa moduluak batzen dituen proiektua da 50 urtetik gorako ibarrek lagunei zuzendua. Informazio gehiago eskuratzeko Debegesara dei daiteke (943 82 01 10) edo helbide honetara jo: www.debegesa.com

Autobus txartel bakarraren sistema abuztutik abian



Jadanik hainbat eskualdetan funtzionatzen duen sistema abuztuan ipiniko dute abian Debarrenean. Lau euroren truke lortu ahal izango da prentsa saltokietan eskaera orria beteta. Ondoren, txartel hori behin eta berri kargatzeko aukera izango da. Eskualde barruko ohiko bidaiak 1,10 euro balioko du eta lau zonaldetan barrena ibiltzeak bost eurora arteko kostua izango du. Txartelarekin zenbat eta bidai gehiago egin deskontu handiagoa lortuko dute erabiltzaileak. Asmoa da aurrerantz beste garraiobideetara zabaltzea sistema.

Inkesta

Espainiako Gobernuak 2.500 euro emango ditu ume bat izateagatik

Nahikoak al dira 2.500 euro ume bat edukitzeko?

MANUEL MARIN
Bankuko langilea
36 urte



“Ez, 2.500 eurok ez dute askorako ematen, umeak gastu asko ekartzen dituztelako. Europako beste herrialde batzuekin alderatuta oso atzean gaude laguntzei dagokienez”.

ISABEL MARIN
Etxekoandrea
56 urte



“Ez da nahikoa, horrela familiek ez dute umerik izan nahi. Eskola, arropa... umeak gastu asko ditu eta laguntzak urriak dira. Gehiago egin behar luke te jaiotza-tasa indartzeko”.

LAURA GARCIA
Begiralea
31 urte



“Ez da nahikoa. Beti dago ongi aurrera egitea, baina gehiago hobetu liteke. Guri umea jaio eta astebetera iritsi zitzaigun berria, eta ikusten dugu umeak gastu asko dituela”.

ELENA RODRIGUEZ
Kirol monitorea
30 urte



“Ez da arazo guztien irtenbidea, baina ezer baino hobea bai. Ez dago argi gurean emango duten. Gauza batzuetarako espainiarrak gara eta bestetan independente”.

[BAI ala EZ?]

Ba al daukazu San Ferminetara joateko asmorik?

BAI %66

“Bai! Urtero joaten naiz eta aurten gainera dobletea egingo dut, ostiralean izan nintzen, bezperan, eta asteburu honetan ere joateko asmoa daukat. Kristonak dira San Ferminak!”

EZ %34

“Ez. Behin izan nintzen eta ez naiz sekula bueltatuko, nire bizitzako esperientziarik txarrenetarikoa izan zen. Jende gehiegi egoten da, jasanezina da.”

Datorren asterako... **Ikastetxeen opor luzeak guraso askorentzako arazo bihurtzen dira. Ondo ikusten al duzu udan ikastetxeak beste jarduera batzutarako erabiltzea?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozeilai.com

Edergintza

Radiofrekuentzia



Sorputza zaintzeko teknika berri batekin gatoz gaurkoan. Radiofrekuentzia dauka izena. Minik gabe, ziztadarik gabe gure gorputza hobetzen lagunduko digu

Radiofrekuentziari buruzko informazio nagusia aurkituko duzu jarraian:

• Zer da radiofrekuentzia?

Frekuentzia altuen bidez, energia elektrikoa bero bihurtzen da, gorputz barmeko tenperatura handitu egiten da, hipertermia bat sortuz. Hasieran frekuentzia txikiagoak erabiliko dira, baina azala berotzen doan heinean, uhin frekuentzia horiek handitu egingo ditugu. Tratamentu honek azala tentsatzeko balio du, bestalde, gorputz bolumena gutxitzen lagunduko digu eta grasa puntualak eta zelulitisaren kontra ere emaitza onak emango dizkigu.

• Tratamentua

Radiofrekuentzia tratamenduak sesio desberdinak izango ditu. Gorputzeko zonalde bakoitzak sesio kopuru desberdina eskatuko du, baina 6-8 sesio gutxienez beharrezkoak izaten dira, zazpi eguneko deskantsuekin. Dena dela, espezialistak eskainiko dizkigu aholku egokienak. Beroa zabalduko duen gel bat jartzen da tratatu beharreko zonaren gainean, eta beharrezko tenperatura lortu arte mugitzen da. Iraupena zonaldearen egoeraren arabera izango da. Ez du minik ematen, tratamentu eroso da neurri handi batean. Tenperatura handiena lortzen den momentuan





izan daiteke apur bat deserosoa, baina orokorrean, tenperatura handitzeak sortzen duen efektua erlajagarria ere izaten da.

• Emaitzak

Pertsona bakoitzaren arabera, radiofrekuentziaren emaitzak desberdinak izan daitezke, baina orokorrean, lehenengo saiotik igaritzen dira hobekuntzak. Azala tentsatzeko tratamenduak 9 eta 12 hilabeteko iraupena dauka gutxi gora behera, baina galdutako gorputz bolumena, saio bakoitzean igaritzen da. Emaitza hauek luzarorako izateko mantenu saioak egitea komeni da.

Judith Zabala - Judith Edergintza



Judith
EDERGINTZA

Errosario Kalea, 19 - Tel.: 943 74 29 50 / 667742118

Olaia
e s t e t i k a

Egin ezazu otsailean laser depilazioa eta ahaztu udan depilatzeaz.

San Inazio, 4 behe - Tel.: 943 74 27 25

- Garbiketak
- Makilajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma (horizontala eta bertikala)
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak

«Erromeria asko eskaini ditut Elgoibarren eta oroitzapen oso onak ditut»

Euskal Jaien mendeurreneko ekitaldien baitan, Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du datorren uztailaren 21ean, Foruen Plazan. Trikitilari bizkaitarrak bere azken lana aurkeztuko digu. Irailean kaleratu zuen "Hiri" diskoko abestiak entzun eta dantzatzeko aukera izango dugu.

• Zer eskainiko diguzu uztailaren 21eko kontzertuan?

Nire azken diskoko abestiak izango dira nagusi. Irailean aurkeztu genuen "Hiri" diskoa eta orain promozio lanetan gabiltza. Kontzertu pila bat ematen ari gara, bai Euskal Herrian, Espainia eta Europan zehar.

• Ez da Elgoibarera zatozen lehenengo aldia, ezta?

Ez. Askotan izan naiz Elgoibarren eta oroitzapen oso onak ditut. Erromerietan ibiltzen nintzen garaian askotan joaten nintzen bertara. San Migel eta beste auzo batzuetan kontzertuak eskainitakoa naiz.

• Nolakoa da "Hiri" diskoa?

Hirietan inspiratutako diskoa da, arrazoi desberdinegatik (kulturagatik, edo bertako biztanleegatik, edo ezaugu dudan musikariren batengatik) nigan eragin duten hirietan oinarrituta dago. Herrialde desberdinetako jendearekin elkarlanean egin dut diskoa, musikari askok hartu dute parte. Disko irekia da. Frantziako iparraldeko hiri batean hasten da, Buenos Airesera ere joaten naiz, Reno, Napoli, Copola...

• Hiriko ala herriko gizona da Kepa Junkera?

Ni auzokoa naiz, Errekalde auzokoa. Jende ezagunaren artean bizitzea izugarri gustatzen zait, ez nuke hori galdu nahi. Nire lanbideari esker herri asko ezagutu ditut, eta bi munduak uztartzeko aukera izan dut. Hiri eta auzoak etengabe aldatzen dira, gaurko Bilbok ez dauka umea nintzenean ezagutu nuenarekin zerikusirik.

• Aukeran, zein hiritan bizitzea gustatuko litzaizuke?

Ezingo nuke bat aukeratu, denbora faltatuko litzaizuke nik nahi dudan hiri guztietan bizitzeko. Buenos Aires, Reno, Napoli... Elgoibarren ere biziko nintzateke.

• Nola eboluzionatu du zure musikak hasi zinenetik gaur arte?

Asko aldatu da. Aitona panderoa jotzen entzuten nuela hasi nintzen nire kabuz trikitia ikasten. Gero, Zabaleta eta Mutrikurekin erdi jolasean ekin genion eta garrantzitsuena Oskorrik eurekin kolaboratzeko deitu zidan momentua izan zen niretzat. Ondoren, trikitixaren mundua deskubirtzen hasi nintzen, Gipuzkoan batez ere. Mundu berria zen niretzat. Mires-



ten ditudan Laja eta Epelde bezalako musikariak ezagutzea handia izan zen. Politikari trikitixari beste ikutu bat ematen hasi nintzen, nire espazioa bilatzeari ekin nion, nahasketak egin, gure musika kanpora esportatu, proiektu berriak... Trikitixari nire izateko era gaineratu diot. Sormena eta interpretazioa oso garrantzitsuak dira, horren aldeko apustua egin dut.

• **Zein eszenatoki dituzu gustuko?**

Leku oso desberdinetan jo dut. Txapelketa eta erromerietan hasi nintzen, trikitixaren etapa guztiak pasatu ditut honaino iritsi arte. Auzo txikietan eta hiri handietan eskaini ditut kontzertuak. Denetan oso gustura sentitzen naiz. Trikitixak euskal kulturara gerturatu nau, bertsolaritza, herri kirolak eta Bilbon ez nituen alorrak ezagutzen lagundu dit. Trikitixari asko zor diot, mundu berri bat deskubritu nuen berari esker.

• **Zenbat trikitixa dituzu etxean?**

Ez ditut kontatu, baina batzuk badauzkat! Instrumentuak biltzea gustatzen zait. Lehen herrialde bakoitzetik instrumenturen bat ekartzen nuen, baina orain gero eta gutxiago. Ez daukat lekuri.

• **Zure musika entzuteko ala dantza egitekoa da?**

Entzulearen arabera da. Denok daukagu dantza egiteko beharra, baina ez beti fisikoki, batzutan mentalki egiten dugu dantza. Musika sentitzeko da, barritik mugitzen zaitu. Momentu bakoitzaren arabera, desberdin sentitzen da.

• **Zergatik ez duzu inoiz abesten?**

Musika konposatzen dudanean abesten dut, baina zuzeneko emanaldietan musika instrumentala gehiago interesatzen zait, abstraktoa da eta aukera handiak eskaintzen ditu, inprobisatzea ere gustatzen zait.

• **Nola inspiratzen da Kepa Junkera?**

Eguneroko bizimoduan, ez dut arrazoi berezirik behar inspirazioa lortzeko, bizitzak berak eskaintzen dizkit inspiraziorako arrazoiak. Oroitzapenak, ilusioak, proiektu berriak, familia, herria, mundua... gai guztiak dira balekoak.

• **Trikitixa jende gutxi entzuten duela iruditzen al zaizu?**

Bai, minoritarioa da. Musika klase guztiak daukate bere publikoa. Ni saiatzen naiz trikitixa irekiagoa egiten. Gauza politak egin daitezke publiko zabalgo baten zat, ez zaio mugarik jarri behar.



«Trikitixari nire izateko era gaineratu diot»

• **Zein talderekin konpartituko zenuke eszenatokia?**

Mila musika talderekin joko nuke gustura, musikari interesgarri mordo dago, jende asko miresten dut. Ezingo nuke bat aukeratu. Oskorirekin jotzea handia izan zen. Ateak irekita ditut. Mike Jaggerrekin trikiti bat jotzea ondo egongo litzateke.

• **Zure denbora librea zertan ematen duzu?**

Lasai egotea atsegin dut, pasiatzera atera eta familiakoekin egotea, bi seme-alaba ditut eta bercaiei ere denbora eskaini behar zaie. Familia da daukagun poli-

tena. Horretaz gain, zaletasun asko ditut: zinema, irakurtzea, kirola... Ez daukat aspertzeko denborarik. Nire lanarekin ondo uztartzen dut.

• **Zer geratzen zaizu egiteko?**

Gauza asko. Urte mordo daramatzat trikitixaren munduan, 13 urterekin hasi nintzen, baina oraindik luzerako daukat, oso gustura nabil.

• **Euskara noizko?**

Zintzilik daukadan ikasgaia da, pena handia daukat, benetan. Nire seme-alabekin hasi naiz hobetzen. Egunen baten hartuko dut ikasteko denbora.

GAZTIA NAIZ

txApeLa bURuAN...



Ion Garate

Ion Garate elgoibartar gazteak 5 urte daramatza Estatu Batuetan. Elgoibar bezalako herri txiki batetatik, Ameriketako estatu erraldoira joan zen Unibertsitateko elkartruke baten ondorioz, eta badirudi tamaina hartu diola hango bizimoduari. Zientzietako ikaslea izanik, Fisikan Doktoretza egiten ari da gaur egun. Texas-eko estatuan bizi da, eta dagoeneko, bertako bizilagun bat gehiago dela esan daiteke. Azken urteotan gutxi ikusi dugu Ion gure herrian, eta aurrerantzean ere, badirudi bisitan besterik ez dela etorriko.

Zer dela-eta joan zinen Elgoibartik Estatu Batuetara?

Unibertsitateko suertatu zitzaidan aukera. Elkartrukeko ikasle moduan etorri nintzen Estatu Batuetara eta dagoeneko, bost urte daramatzat hemen. Fisikako doktoretza egiten ari naiz.

Amerikartuta egongo zara honezkero, ala?

Hona etorri nintzenean ez nekien ingelesez. Gramatikan ondo nenbilen, idatzi eta irakurri ondo egiten nuen, baina belarrez ez nenbilen horren fin. Bost urteren ondoren, "no problem".

Zer gustatu zaizu gehien? Eta gutxien?

Arrazen eta ideologiaren aniztasuna eta hemen dauden baliabideak: akademikoak, medikuntza alorrekoak, aisiaaldikoak... Gutxien gustatzen zaidana Estatu Batuen politika internazionala, zentro komertzial erraldoiak eta autoaren kultura dira.

Estatu Batuetara iritsi zinenean, zerk eman zizun atentzioa?

Sari harrizten naiz beste kulturetako jendearekin hartuemanean. Horretaz gain, amerikar askoren abertzaletasuna eta Texaseko eguzkia nahiko harrigarriak dira.

Zer botatzen duzu faltan?

Kale estuak, jendea oinez ikustea kalean, umeak jolasean edonon... Horrez gain, familia eta lagunak ere bai; bestela haserretu egingo zaizkit!

Ba al daukazu etxera itzultzeko asmorik?

Urtean behin edo bitan joaten naiz bisitan, baina ez daukat Elgoibarren bizitzeko asmorik, bertako nes karen batekin ezkontzen ez banaiz behintzat! Baina bisitatzera beti itzuliko naiz.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



biluzik sexologia txokoa

Eider Goiburu [Sexologoa]

Oporrak

Urte guztia lanean eman ondoren, iritsi da hainbeste itxarondako unea: oporrak. Eguzkiaren epeletan etzan, bainu bat hartu hondartzan eta gorputzeko berotasunean, gauean ligatzera. Gizarte osoa moteltzen da uztaile eta abuztuan, eta Biluzik Sexologia Zerbitzuak ere oporrak hartu ditu.

Beno, joan da beste ikasturte bat, da-goeneko udan gaude (nahiz eta itxura handirik ez izan), San Juanetan bota ditugu liburu, koaderno eta eskolako apunteak sutara, eta ahaztu ditugu etxean ikasten pasatako ordu luze eta aspergarri guztiak.

Disfrutatzeko momentua da, jaiak alde guztietan, lagunak, hondartza, maitale berriak... bai, iritsi da uda!

Hala ere, askotan jai giro zoragarri hauetan gertaera txarrak ere izaten dira: errespetu falta, sexismoa, hurrengo eguneko pastilen beharra, bortxaketak... hau guztia onartezina da, ezin diogu hauei lekunik utzi gure uda zoragarrian! Horrelako egoerarik bada zuen inguruan salatu! Laguntza eskatu! Lagundu! Ez egin ezer gertatuko ez balitz bezala, gertatzen da eta.

Guretzat ere iritsi da uda, Biluzik-ek ere oporrak hartzen ditu, ondo merezita-koak! Urte osoan egon gara zuekin, kontsultei erantzuten, hitzaldiak, antzerkiak, tailerrak... antolatzen, eta guri ere iritsi zaigu deskantsatzeko momentua, bai, oporretara goaz!

Bihotz-bihotzez opa dizuet opor zoragarri, zoriontsu, bero, kilikagarri eta ezinhobe bat!



gazte
informazio

LANA

IRAKASLEEN LAN-POLITSA

Debabe Udal Euskaltegien mankomunitatea. Irakasle lan-politsaren sortzea kontratazio berrietarako eta ordezkapenetarako. Epea: Uztailaren 20a

ZUZENDARI PEDAGOGIKOA

Oteic taldea. Iruñerriko ikastola batean hezkuntza proiektua zuzentzeko eta dinamizatzeke zuzendari bat behar da. Epea: Uztailaren 27a

GAZTE-TXOKOA

Lorraz Elkartea. Una educadora social para el Gazte-Txoko de Legazpi. Plazo: 19 de julio.

GIZARTE HEZITZAILEA

Lorraz Elkartea. Gizarte hezitzaile bat Olaberriako Ludotekarako. Epea: Uztailaren 19a

LEHIAKETAK

GOMENDATZEN DIZUT

Oporraldien gomendioak bidali www.aizue.com blogera. Epea: Irailaren 30a

EKINTZAK

ANTZERKIA KALEAN

Donostia Kultura. Uda honetan antzerkia ikusteko aukera irailaren 16ra arte Donostiako auzoetako plaza eta kaleetan. Programazioa: www.donostiakultura.com

ELKAR TRUKEA

Donostiako Udala. Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza. Donostiako eta Wiesbadeneko 14tik 18 urte artera bitarteko Europar gazteen elkar trukea burutuko da abuztuaren 11tik 19ra.

IKASTAROAK

SOLIDWORKSEKO

Gipuzkoako Peritu eta Industria Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofiziala. Solidworkseko aditu ikastaroa, abuztuaren 2tik 22ra arte. Epea: Abuztuaren 2a

BEKAK

ZUZENTZAILE-ITZULTZAILEAK

Berria egunkarian zuzentzaile-itzultzaile gisa prestakuntza teorikoa eta praktikoa hartzeko bekak. Epea: Irailaren 7a

JOSE ANTONIO LOIDI

Irungo Udala. Euskaraz egiten diren ikerketak bultzatzeko beka. Ikerketa arloak honakoak dira: filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Epea: Irailaren 21a

KAZETARITZA PRAKTIKAK

Kazetari gisa prestakuntza teorikoa eta praktikoa hartzeko beka Berria egunkarian. Epea: Irailaren 7a

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.

e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es

☎ 943 741 461



Astearretik ostiralera
17:00-20:00

PELLO ARRIETA HISTORIALARIA

«Euskal kultura eta euskara suspertzea zen Euskal Jaien helburua»»

“Elgoibar modemitatearen atarian, 1870-1910. Euskal Jaiak 1907” izenburua dauka Pello Arrietaren liburu berriak. Duela 100 urte Elgoibarren egin ziren Euskal Jaien inguruko liburu bat idaztea zen bere asmoa, baina Euskal Jaien helburua ondo ulertzeko, ezinbestekoa zen testuinguruan kokatzea. Honela, 1870. urtetik 1910era arteko epealdian zentratu da, gure herriarentzako garai hura oso garrantzitsua izan zelako. Artxihoan ordu mordo bat eman ditu informazio bila, baina gustura aritu dela aitortu digu. Liburuaren aurkezpena hilaren 17an izango da arratsaldeko 19:00etan Musika Eskolako auditorioan. Ekintza kultural baten baitan egingo da liburu honen aurkezpena.

► Nondik sortu zitzaizun liburu hau idazteko ideia?

Duela 5 urte inguru, udaletxeko artxihoan ikertzen ari nintzela, 1907an Elgoibarren Euskal Jaiak ospatu zirela konturatu nintzen. Uztailaren 26tik 30era bitartean ospatu ziren. Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Bizkaiko diputatu nagusiak etorri ziren eta domekan autoritate erlijiosoak ere etorri ziren, Gasteizko apezpikua ere hemen izan zen.

► Zu konturatu zinen beraz, duela 100 urte Elgoibarren Euskal Jaiak antolatu zela?

Baietz esango nuke. Hori deskubritu nuenean Euskara sailarekin eta kultur talde desberdinekin harremanetan jarri nintzen interesgarria izan zitekeelakoan. Bartzorde bat sortu da eta aurtengo urtearen hasieratik ekintza desberdinak antolatu dira Euskal Jaiak gogorarazteko.

► Erliijoak euskararekin baina zeukan zerikusirik?

Bai. Garai hartan Elgoibarko apaiz asko euskal kulturaren suspertzaileak izan ziren. 1877an Pedro Miguel Urruzuno izan zen parrokoa, idazlea. Gero Mendaron egon zen hil arte eta

bizitza guztia idazten eman zuen. Euskal Jaietan parte hartu zuen Orkaiztegi ere gure herriko parrokoa izan zen, Toribio Iriondo elgoibartarra ere apaiza izan zen. Apaizek lan handia egin zuten euskara suspertzeko.


► Nola sortu ziren Euskal Jaiak?

XIX. mendearen azken laurdenean hasi ziren antolatzen Euskal Iparraldean. Antoine D'Abadie izan zen Lore Jokoen sortzailea. Gerora hegoaldeko lau diputazioak hasi ziren honelako ekintzak bultzatzen.

► Zergatik aukeratu duzu 1870-1910 epealdia?

1907ko Euskal Jaiei buruz idaztea zen helburua, baina ikusi nuen ezin nuela hori bakarrik kontatu, testuinguru bat behar zuen, garaian kokatu behar nuen, Elgoibarko erretratu bat egin behar zen. Urte haietan eragin handia izan zuen Gerra Karlistak. 1872tik 76ra izan zen eta ondorioz, Euskal Herriak nortasun galera handia jasan zuen. Euren autonomia politikoa eta autogobernua galdu egin zituzten. Gauza asko aldatu ziren epealdi honetan. Horrez gain, industrializazioa ere ematen ari zen batez ere, Bizkaian, baina Gipuzkoan ere





Ezkerreko argazkian dantzari txikiak, Pujana dantzari famatua ere Elgoibarren izan zen Euskal jaietan. Eskuman, Ganadu eta Nekazal Lehiaketako egitarauaren azala.



bai eta etorkinak gero eta gehiago ziren, euskararen atzerapen handia eman zen, Bilbon batez ere. Testuinguru honetan hasi ziren Euskal Jaiak bultzatzen. Urte baikoitzean herri batetan egiten zen, Elgoibarri 1907. urtea tokatu zitzaion. Testuinguru honetan hobeto ulertuko zela iruditu zitzaidan. Modernitatea aipatu dut izenburuan gure herria aldaketa baten atarian zegoelako. 1977an San Pedro fabrika ireki zen eta horrek sekulako garrantzia izan zuen. Makina Erreminta garatzen hasi zen eta gaur egun gure herriko produktu garrantzitsuen da. Elgoibarren erretratu orokor horretan ekonomia, politika, demografia, erlijioa, euskararen erabilera... aipatzen dira.

► **Zer ospatzen zen Euskal Jaietan?**

Euskal kultura eta euskara suspertzea izaten zen helburua, baina horrekin batera ganadu eta nekazal produktuei ekonomikoki bultzada eman nahi zitzaion. Elgoibarren ganadu eta barazki lehiaketan jende askok hartu zuen parte. Bizkaiko mugan egonda, jende asko etorri zen Bizkaia aldetik euren ganadu eta nekazal produktuekin. Behiak, zaldiak, oilaskoak, usoak... denetarik izan zen. Nekazaritzari buruzko diapositiba emandakia ere izan zen, sektore honi bultzada emateko asmoz. Batetik nekazal munduarekin loturiko ekintza zen, baina bestetik kultura bultzatzen zen: literatur lehiaketa izaten zen, po-

esia, narrazioak, herriko historia bultzatzea, musika, txistu, dantza...

► **Zergatik galdu zen Euskal Jaiak egiteko ohitura?**

Garai hartan herriz herri antolatu ziren urtero, Eibarri adibidez, 1908an tokatu zitzaion. Gerra Zibilaren ondoren ez zen gehiago antolatu modu horretan.

«Duela 100 urte Elgoibarko hizkuntza nagusia euskara zen»

► **Zarautzen egiten den Euskal Jaia honen jarraipena al da?**

Izan liteke, baina lehen beste esanahi bat zeukaten. Kulturaren azalpen osoa egitea zen helburua eta Zarauzkoa folklorean oinarritzen dela uste dut. Elgoibarren antolatu zenak alde folklorikoa ere bazuen baina kultura bultzatzen zen batez ere: dantza, bertsolariak... Pujana dantzari famatu eta beteranoa zena Elgoibarrera etorri zen dantzari txikiak prestatzera. Garai hartako diputatuak ere bazekiten dantza egiten eta

Euskal Jaietako igandean beraien atera zuten aureskua eta atzeskua.

► **Zein garrantzia zeukan euskarak garai hartan Elgoibarren?**

Duela 100 urte Elgoibarko hizkuntza nagusia euskara zen. Gaur egungoaren kontrakoa gertatzen zen: kaleko eta familiarako hizkuntza euskara zen, baina udal-terrekoa ez, legeek ez zuten baimentzen euskaraz egitea. Kaleko hizkuntza euskara zen baina ofiziala gaztelera. Eskolan ere gaztelania erabiltzen zen eta euskaraz egiten zuena zigortu egiten zen. Alde horretatik gaur egun baino hobeto geunden. Administrazioa euskaldundu da, baina kalean galdu egin da, jakin arren ez dugu erabiltzen. Garai hartan euskara zen nagusi. Erabileran eta ezagupenean lehen baino okerrago gaude. Ofizialtasunak ez du hizkuntza bermatzen.

► **Gaur egun Euskal Jaiak antolatzeke beharrik ikusten al duzu?**

Frankismo garaian euskal asteak antolatzen ziren. Euskal kultura erakustea zen helburua, ez geneukan honen berri, dena Espainiakoa zen. Gaur egun badaukagu euskal kulturaz jabetzeko modua, ETB, Euskadi Irratia, Argia, BARREN... Garai hartako ereduarekin behintzat, ez luke Euskal Jaia antolatzeak zentzu handirik izango. Beste modu batean planteatu behar da, baina oraindik beharrezkoa da euskara suspertzea.

ESKOLA KIROLA

Eskola Kirola berria bultzatzeko kontseilua sortu da

Eskola Kirola programari indar berria emateko asmoarekin sortu da Eskola Kirolaren Kontseilua. Herriko ikastetxe bakoitzeko 2 ordezkari, Udal Kirol Patronatuko 2 ordezkari eta Foru Aldundiko ordezkari batek osatuko dute Kontseilu hau. Bestalde, Kontseiluak hartutako erabakiak aurrera eramateko enpresa bat kontratatu da eta Xabier Zabaleta Gorputz Heziketa lizentziatua izango da kudeatzailea.

Eskola Kirolaren helburuak

Eskola Kirola programaren eginkizuna, Elgoibarko ikastetxeetan kirola bultzatzea da, hau da, ikasleak, eskolan hasten direnetik goi mailako beste ikasketa batzuetara iritsi bitartean, eskola orduetatik kanpo eta eskolan bertan, egiten duen edozein jarduera fisiko sartzen dira Eskola Kirolaren baitan. Helburu nagusia beraz, Kirola Elgoibarko ikasle guztiengana hurbiltzea



da, beti ere, hautaketa eta errendimendu prozesuak alde batera utzita, eta lehiaketara bakarrik mugatu gabe.

Datorren ikasturteik aurrera 11 kirol desberdinetan parte hartzeko aukera izango dute Eskola Kirolaren programa

berrian izena ematen duten umeei. Taldekakoen artean futbola, eskubaloia eta saskibaloia dauzkagu, eta bakarkakoetan berriz, atletismoa, xakea, txirrindularitza, pilota, eskalada, mendizaletasuna, tenisa eta igeriketa.



Tenis jaialdia

Kirol Patronatuaren eskutik, umeentzako tenis jaialdia izango da bihar, uztailak 14 Olaizaga kiroldegian. Egun osoz, Bartzelonako Divertenis enpresak antolatzen dituen hainbat tenis jardueretan 200 lagunek hartuko dute parte. Goizean zehar, 10:00etatik 13:00etara, pelotak jaurtitzeko makinarekin, dianekin, minitrans eta antzeko jolasekin arituko dira eta 15:00etatik 17:00etara, minitenis txapelketa jokatuko dute. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak 1996. urtean ekin zion Tenis Jaialdia antolatzeari, gazte eta haurren artean tenisa hedatzeko asmoz.

Jon Revertek eskura du mendiko lasterketen Kopako podiuma

Erregularitasun aparta erakusten ari da Jon Revert VI. Mendiko Lasterketen Euskal Herriko Kopan. Azken proban, Ezpeleten (Lapurdi) lortutako 20. postuari esker, sailkapen nagusiko 4. postuan sailkatuta dago eta eskura du azken podiuma. Proba honetan David Conde elgoibartarrak ere hartu zuen parte, eta honek 22. postuan amaitu zuen lasterketa. Zegama-Aizkorri mendiko maratoi ezaguna izango da Kopako azkena irailaren 23an.



Luis Rodriguezek Euskadiko Bolo Palma txapelketa irabazi du

Arrasaten jokatu zen pasa den asteburuan Euskadiko Bolo Palma Txapelketa eta beteranoen mailan Luis Rodriguez elgoibartarra izan zen txapeladuna. Euskadiko txapelketa irabazi ondoren, Espainiako txapelketa hartuko du parte, datorren abuztuaren 28an Potesen, Luis Rodriguezek jaioterrian, hain zuzen ere.

Zazpi Informatika -REN ESKUTIK

IRUZURRAK ONLINE: BANKURA INTERNET BIDEZ SARTZEKO AHOLKUAK

Bankura internet bidez sartzeko ohitura asko areagotu da azkenaldian, gero eta gehiago dira bankuetako tramiteak internet bidez egiten dituztenak: transferentziak, ordainketak, kontsultak... Kasu honetan beharrezkoa da datuak babestea. Ezin daiteke pentsatu gure etxeko ordenagailuan lasai-lasai eserita egoteagatik ez dugutela dirurik lapurtuko, beraz, kutxazain automatikotik dirua ateratzerakoan eta txartelarekin ordaintzen dugunean hartzen diren neurri berberak hartu behar dira ordenagailu aurrean ere. Hala ere, ez da beldurrik eduki behar bankuko datuak internet bidez kontsultatzeko, neurri egokiak hartzea da klabea.

Zazpi informatikakoek bankuko tramiteak internetez egiteko zenbait aholku eman dizkigute:

1. Lehenengo aholkua obligazio bat da: ez da komeni bankuko tramiteak ordenagailu publikoetatik egitea. Ziber-kafeak, eskolak, bulegoak... datuak berreskuratzeko sistemaren bat izan dezakete eta arriskutsua da. Ezinbestekoa bada leku publiko bat erabiltzea, inguruan jenderik ez egotea komeni da eta tramitea bukatutakoan klabeak aldatzea gomendatzen da.

2. Bankuak eskaintzen dituen segurtasun neurriak hartu.

3. Nabigatzailea eguneratuta eduki behar da, segurtasun protokoloak araututa izateko.

4. Interneteko helbidea https hizkiekin hasten dela konprobatu, http izan beha-



rean. Nabigazio segurua ziurtatu SSL (Secure Sockets Layer) sistemaren bidez. Orrialdea bankuaren gunea dela konprobatzea ere garrantzitsua da, datuak lapurtzeko imitazio orrialde asko daude eta.

5. Zure datuak eskatzen badizkizute koreo elektronikoaren bidez, ez eman inoiz, bankuak ez ditu datu hauek eskatzen.

6. Banku elektronikorako sarrera klabeak ezkutuan gorde, ez apuntatu ordenagailu ondoan eta ez esan inori.

7. Klabe aleatorioak erabili eta noizean behin aldatu.

8. Tramiteak egin ondoren, ordainagiri inprimatu edo kopia bat gorde.

9. Banku elektronikoaren webgunera sartu garen azken data apuntatu, ia orduetik beste norbait sartu den konprobatu ahal izateko.

10. Banku elektronikoan sartuta zaudenean, gainontzeko leiho guztiak itxita edukitzea komeni da, ez despistatzeko.

11. Amaitutakoan sesioa itxi.

12. Interneteko historiala ezabatu banku elektronikorik atera ondoren.



**ZAZPI
INFORMATIKA**

zazpi@telefonica.net

Pedro Muguruza, 8 beheaTel./Faxa: 943 74 37 87



Softlan
analisi & programazioa

Antonio Amillaga, 1
Tel.: 943 74 81 05
info@softlan.biz

www.softlan.biz



On
informatika

Upaiz Zaharra 6
943 741 846
www.oninformatika.com
on@oninformatika.com



**MICRO
SYSTEM** INFORMATIKA

DENDA
Lerun Industrialdea, 6
ZERBITZU TEKNIKOA
Jausoro Plaza, 3
ELGOIBAR

Tel.: 943 74 02 40E-posta: info@elgonet.es

[ETXEBIZITZAK]

ALOKAIRUA

- ▶ Emakume arduratsua etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren edo inguruetan. ☎ **699717008**
- ▶ 4 logelatako etxea alokatzen da Cadizen udarako. 400 euro asteko. ☎ **600067658**
- ▶ Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan. ☎ **677617031**
- ▶ Aiton-amonaren batentzako pisua behar da. Igogailuarekin edo kale-rako irteera zuzenarekin. Erdigunean, edo gertu. ☎ **639086330**
- ▶ Pisua alokatzen da Elgoibarren. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. ☎ **630878054**
- ▶ 25 urteko neska batek pisua hartuko luke alokairuan beste pertsona euskaldun batekin konpartitzeko. ☎ **658700164**

[AUTOAK]

- ▶ Opel Kadet 1.6s autoa salgai. Egoera eta prezio oso onean. ☎ **626140930**
- ▶ Autoa salgai. Gasolinazko Mercedes. Egoera onean eta merke. ☎ **639390808**
- ▶ Seat Ibiza Sport TDI, 1.9/100hp salgai. 3 ate. Egoera oso onean. Grisa, 2005eko azarokoa. 27.000km. 2010era arteko bermea. Prezioa adosteko. ☎ **675714031**
- ▶ Peugeot 1007 ia berria salgai. 75 zaldi, abiadura aldagailu sekuentziala, gasolina, urtebeteko garrantia. ☎ **650693070**

[GARAJE eta LOKALAK]

- ▶ Garaje itxia salgai Bernardo Ezenaro kalean. ☎ **615712216**

[BESTELAKOAK]

- ▶ Borda egokitu bat erosiko nuke. ☎ **680178636**
- ▶ Kanping handia salgai. ☎ **943741441**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **943531608**
- Mutila lanerako prest. Erakuntzan, pinturan, kamarero, igeltsero... ☎ **943531608**
- Portalak garbitzen ditu. ☎ **649632148**
- Emakumea nagusiak edo zaintzeko prest. Orduka. ☎ **671476869**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan. ☎ **671742142**
- Emakumea garbiketarako lanak egiteko prest. ☎ **667709439**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **943740305**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **667397100**
- DBH2ra arteko klase partikularrak emango dituzte. ☎ **695868465**
- Mutila igeltsero, kamarero edo beste edozein lan egiteko prest. ☎ **638905932**

- Neska lanerako prest. Oso arduratsua. ☎ **659381601**
- Neska gaztea umeak zaintzeko prest. ☎ **662250073**
- Emakume gaztea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako... egiteko prest. ☎ **626394831**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarako egiteko prest. ☎ **638527915/943740367**
- LH, DBH, matematika, fisika, marrazketa... klase partikularrak udan. ☎ **653717972**
- Emakumea garbiketarako lanak egiteko prest. ☎ **943742201 (13:00-17:00 edo 20:30etik aurrera)**
- LHtik DBH2ra arteko klase partikularrak ematen dira uztailean, goizez. ☎ **943742855**
- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaindu, kamarero edo sukalde laguntzaile lanetarako prest. ☎ **626394831**

ESKAINZA

- Jatetxerako kamareroa behar da. ☎ **943121262**

- Astegunetan tabernarako kamareroa behar da. Esperientziaduna. ☎ **943740404**
- Jatetxerako sukaldari laguntzaile behar da. ☎ **943740580**
- Tabernarako kamarero euskalduna behar da. ☎ **670654921**
- Pertsona bat behar da Textil Hogar Lagunak dendarako. ☎ **943744457**
- Kamareroa eta sukaldaria behar dira. ☎ **943743196**
- Pertsona arduratsua behar da 6 urteko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Asteleheneratik ostiralera. Ordu-tegi malgua. ☎ **943531088**
- Mendaroko Udalean ondorengo oposaketak daude: zeregin anitzetako langile bat, zeregin anitzetako ofizial bat eta denbora partzialerako aparejadorea. ☎ **943033282**
- Txuri-Beltz taberna asteburuetan lan egiteko pertsona euskalduna behar da. ☎ **943741513/943740228**
- Arotz laguntzaile behar da. ☎ **653707837**

- Zarautzen ile apaintzailea behar da. Kontratu finkoa eskaintzen da. ☎ **943890281/678659118**
- Kamareroak, sukalde laguntzaileak eta garbitzaileak behar dira. Kontratu eskaintzen da. ☎ **688623668**
- Arropa denda batek neska euskalduna behar du. Esperientzia, informatika menperatzea eta gida baimena baloratuko dira. ☎ **943741129**
- Neska edo mutil euskalduna behar da tabernarako. Astegunetan eta asteburuetan txandaka. ☎ **943742897**


ABISUAK

- Igandetik astelehenera bitartean CD mordo eta CDak grdetzeko zorroa galdu nituen Guass inguruan. Saritu egingo da. ☎ **616610957**
- Giltz bat aurkitu dut Artekalako eskailera mekanikoen inguruan. Amona mandangorriak ditu. Udaltzaingoa laga dut.

[ZORIONAK]



▶ Zorionak gure eteko erregearentzat 3 urte egingo dituzelako.



▶ Zorionak **Andrea** 11 urte egin dituzulako. Maite zaitugun guztion partez. Muxuak zuretzako!




▶ Zorionak **Loli** hilaren 4an urteak egin zenituelako. Mertxe, Marian eta Reneren partez.



▶ Mila kilo zorion **Aritz** igandean 4 urte egingo dituzulako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak aita uztailearen 29an urteak egingo dituzulako. Danel eta Sarairen partez.



▶ Zorionak **Mikel** asteartean 9 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Borja, Ignacio eta Nerea.



▶ Zorionak **Arrate eta Irati!** Muxuak Egoitz, Arkaitz, Inigo eta Pedroren partez.



▶ Zorionak **Maria, Nora eta aitxixa Inazio.** Familiako guztien eta bereziki, Jonen partez.



▶ Zorionak **Isu eta Pabai** hilaren 20an eta 22an urteak egingo dituzelako. Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Iria** uztailearen 15ean urte bat egingo duzulako. Asier, Markos eta familiakoen partez.



▶ Zorionak **Itoitz** hilaren 9an 12 urte egin zenituelako. Bernedotik etortzen zarenean ospatuko dugu.



▶ Zorionak gure eteko printzesari hilaren 17an 11 urte egingo dituzulako. Eneko eta familiakoak.



▶ Zorionak **Naia** gaur 10 urte egin dituzulako. Ahizpa Jone, lehengusina Ainhoa eta Nagore.



▶ Zorionak **Ibon** gurasoen partez. Muxu bat anaia Landerren partez.



▶ Zorionak **Helene!** Uztailearen 10ean 8 urte bete zenituelako. Familia osoaren partez.



▶ Zorionak **Iker eta Leire!** Ondo pasa zuen egunean. Elgoibarko familia eta lagunren partez.



▶ Zorionak **Mikelxo** uztailearen 16an 10 urte egingo dituzulako. Aritz, ama eta aitaxoren partez.

BARREN astekarian

KAZETARIA BEHAR DA

Eskatzen da:

- Kazetaritzan lizentziatua (edo kazetaritza ikaslea).
- Irailean lanean hasteko.

Eskaintzen da:

- Egun erdiko lan-jarduna.

Curriculumak entregatzeko azken eguna:

Uztailak 20 (ostirala).

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkarte - Ubitarte 4, behea

Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)

E-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com



[OKINDEGIA]



15 igandea FOTERO



[FARMAZIAK]

13	Bidasolo
14	Etxeberría (Santa Ana)
15	Etxeberría (Santa Ana)
16	Ibañez
17	Bidasolo
18	Zabaleta
19	Etxeberría (Santa Ana)
20	Ibañez

KANPOKO FARMAZIAK
IBÁÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84

* *Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udalzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
I.M.H.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
• Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
 6:55, 7:15, 7:45, 8:15, 8:35, 9:05,
 10:45, 13:45, 14:05, 14:45, 15:45,
 18:45, 20:45
Larunbatak:
 7:05, 7:15, 9:05, 10:45, 11:05, 13:45,
 15:05, 18:40, 19:05
Igandeak eta jaiegunak:
 9:05, 9:45, 13:05, 13:40, 17:05, 18:40,
 20:40, 21:05
PESA: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:15, 7:00, 8:00, 9:30, 12:30, 13:00,
 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30,
 19:00, 19:30, 20:45, 21:00
Larunbatak:
 8:00, 12:00, 12:30, 15:00, 16:00,
 17:30, 19:30, 20:45, 21:00
Igandeak eta jaiegunak:
 8:00, 12:00, 12:30, 16:00, 19:30,
 20:00, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45..
 ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuk eta jaiegunak:
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
 21:55.
Asteburua eta jaiegunak:
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[14 ZAPATUA]

10:00 TENIS JAIALDIA

Olaizaga Kiroldegian
 10:00etatik 13:00etara, pelotak
 jaurtizteko makinarekin, dianekin,
 minitrans eta antzeko jolasak
 15:00etatik 17:00etara, minitenis
 txapelketa.
 Antolatzailea: Udal Kirol Patronatua

17:00 ELECTRO, TECHNO ETA MINIMAL FESTA LOJANTZIN

Azken electro musika, minimal eta
 techno tendentziak ipiniko dituzte
 Lojantzi Pub-ean.
 Perkusioa bongoekin eta timbalekin
 ere egongo da.
 Informazio gehiago:
www.lojantzi.net

20:30 BERTSO AFARIA

Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta
 Jon Maia.
 Aubixa barmetegian
 Izen ematea: Euskara sailean
 Antolatzailea: Euskal Herriko
 Bertsozale Elkarteak

S I N O P S I A K

«El novio de mi madre»



[16 ASTELEHENA]

18:00 BERTSO TRIBIALA ETA KANTALDIA

Mintxetako igerileku irekian

19:00 ELGOIBARKO ARGAZKI ZAHARREN ERAKUSKETA

Kultur Etxeko erakusketa gelan
Astelehenetik zapatara: 19:00etatik
21:00etara
Uztailaren 28ra arte

[17 MARTITZENA]

19:00 "ELGOIBAR MODERNITATEAREN ATARIAN (1870-1910) EUSKAL JAIK 1907"

Pello Arrietaren liburuaren aurkezpena
Musika eskolako auditorioan

[19 EGUENA]

14:00 BERTSO BAZKARIA ETA TXITXIBURDUNTZIA

Aubixa barmetegian
Bertsolariak: Fredi Paia eta Oihana Bartra.
Bazkalostean, trikitilariak
Izen ematea: Euskara Sailean
Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsotale Elkarte

[20 BARIXAKUA]

18:00 BERTSOLARIAK ETA TRIKITILARIAK HERRIKO KALEETAN ZEHAR

Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsotale Elkarte

22:30 ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXI. JAIALDIA

Txinako "Qiandongnan abesti eta dantza konpainia", Peruko "Jallmay dantza taldea" eta "Haritz EDT" Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea: Haritz EDT.

22:30 "NAPOKA IRIA" TALDEAREN KONTZERTUA IRATXON

Napoka Iria bikote akustikoa Iratxo tabernan

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



Michelle Pfeiffer Paul Rudd
El Novio de mi Madre



El novio de mi madre
13, barixakua: 22:30

«El novio de mi madre»
13, barixakua: 22:30
«Azur eta Asmar» (euskaraz)
14, zapatua: 19:30-22:15

«Sunshine»
23, astelehena: 22:30
«La caja Kovak»
24, martitza: 19:30-22:15
«Nomadak TX»
27, barixakua: 22:30

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.


e»

«Azur eta Asmar» (euskaraz)

Zuzendaria: Amy Heckerling.

Antzezleak: Michelle Pfeiffer, Paul Rudd

Rosie Los Angeles hirian bizi den 40 urteko ama ez-kongabea da. Bere bizimodua ez da berak imajinatu zuen modukoa. Lanean; ekoizten duen telebista saioa ez dago unerik onenean, nagusi sexista bat dauka eta bere postuan desiratzen duen laguntzailea. Etxean ere gauza onik ez; emakume gazteago batekin ume bat eduki behar du bere senar ohiak eta Izzie bere alaba nerabea kezka iturri amaigabea da. Gauzak horela Adam Pearl aktore gaztea ezagutuko du eta maitemindu egingo da.



Zuzendaria: Michel Ocelot
Marrakki bizidunak (+ 7 urte)

Behin batean baziren bi haur, emakume batek hazi zituenak: Azur ilehori begi-urdina noble baten semea zen; Asmar, beltzarana eta begi beltzekoa, emakume haren, ugazamaren semea zen. Biak hazi ziren anaiak balira bezala, halabeharrak bereizi zituen arte. Azurrek, ugazamak Djinen Maitagari elezaharrekoak kontatzen zizkion ipuinek akuilatuta, ez du atsedetik izango hura aurkitu arte. Heldu eta gero, elkarren etsai bihurturik, odolezko anaia izandakoak Maitagariaren bila ontziratuko dira.

Atzera hegira



2000. urteko erretratu hau Lucia Zabalak laga digu. Egun honetan Biar Dana Elkartearen 50. urteurrena ospatu zuten eta bertan, bi bazkide beterano omendu zituzten, Jose Antonio Arrillaga eta Juanito Garate. Herriko jende ezagun mordoaz azaltzen da erretratuan eta interesgarria iruditu zaigu argitaratzea. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri direnak.

Goian, ezkerretik eskumara: Fernando Ayesta, J.M. Ruiz de Gauna, Joseba Landaburu, J.R. Soraluze, Julian Arrillaga, Luis Etxeberria, Fermin Ruiz de Gauna, Luis Clerigué, Anton Mugerza, Ramon Etxaniz, J.R. Agirregomezkorta, Rikardo Astigarraga, Patxi Juaristi, J.A. Bereziartua, Rafael Rodriguez, Carmelo Iriondo, Javier Arberas, Tomas Urrusolo, Sabino Lizarralde, Manuel Etxaniz, J.A. Zubiaurre, Jose Zuazubizkar, Iñaki Alvarez.

Bigarren ilaran: Eustakio Goñi, Jose Zabala, J.M Lizundia (t), Joakin Agirezabala, J.M Otaegi, J.R. Ezenarro, Bizente Elkoroiribe, Julio Arriaga (t), J.L. Mujika, Patxi Ajubita.

Beheko ilaran: Manu Arrillaga, German Pedrosa, Alejandro Alvarez, Anjel Fernandez de Jauregi, Pepe Arrillaga (t), Juanito Garate (t), Luis Santolaya (t), Guillermo Garate, J.M. Etxaniz, J.L. Arana, Iñaki Barrutia eta semea, Patxi Arberas, Alberto Ansola "Mausitxa", J.M. Ribero, Jose Inazio Jauregi.

JAVIER CASADO TAXISTA


Elbarrientzako egokitua.
7 laguntzako eserlekua.

OPORRAK:
abuztuaren 4tik 26ra

Tel.: 678 92 96 90



Malape taberna
Orain astegunetan



San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43

© malape
Elgoibar, 481345

TXARRIDUNA PAULANER



JATETXEA



- Plater Konbinatuak
- Bokadiloak
- Pintxoak



- Eguneko menuak
- Menu bereziak
- Jaietarako Menu bereziak



Alemaniar Garagardotegia

Ermuaranbide, 1 - Tel.: 943 74 04 90



KULTURGUNEA
CENTRO DE
CULTURA TRADICIONAL

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXI. FOLKLORE JAIALDIA



Elgoibarko Udala
Musika eta Dantza
Udal Fundazioa



UZTAILAK 20
OSTIRALA
22:30ean



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Elgoibarko
Kiroi Patronatua

OLAIZAGA
KIROLDEGIAN



Txankakua
Merkatarri Elkarte



Haritz
Euskal Dantzari Taldea

EUSKAL HERRIA - TXINA - PERU